



---

## FORU DEKRETUA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila  
Zerga Araudiaren Zerbitzua  
Esp. zk.: 122/2018

**Aldatzea 110/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, Foru Ogasunari aitortzen eta autolikidazioak bide telematikoz aurkezteko baldintza eta eskakizun orokorrak arautzen dituena.**

Arabako Foru Aldundiak informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera sustatzea du xede, funtsezko helburutzat hartuta zerbitzu egiten dion gizartearen gaur egungo eta etorkizuneko eskakizunei behar bezala eta modu eraginkorrean erantzuneko dion administrazio elektronikoko integratuaren eredu diseinatu eta garatzea.

Testuinguru horretan, helburu hori garatu eta lortzeko behar izan diren xedapenak eta ezaugarriak eman ditu, herritarrei eta enpresei beren betebeharrak errazago betetzen laguntzeko, hartara ahal den neurrian murriz daitezkeen betebeharrak betetze horrek berekin dakartzan zeharkako kostuak.

Foru dekretu honen xedea da eguneratzea Foru Ogasunari aitortzen eta autolikidazioak bide telematikoz aurkezteko baldintza eta eskakizun orokorrak.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

### XEDATZEN DUT

**Artikulu bakarra. Aldatzea 110/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, aitortzen eta autolikidazioak bide telematikoz aurkezteko baldintza eta eskakizun orokorrak arautzen dituena.**

Aldaketa hauek sartzen dira abenduaren 23ko 110/2008 Foru Dekretuan, zeinaren bidez arautzen baitira Foru Ogasunari aitortzen eta autolikidazioak bide telematikoz aurkezteko baldintza eta eskakizun orokorrak.

**Bat.** Aldatzen da 3. artikuluan 1. apartatuko 2. paragrafoa. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“2. Zergapekoak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko zerbitzuak apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretuan eta azaroaren 29ko 74/2011 Foru Dekretuan ezarritako prozeduraren arabera erabili beharko ditu.

**Bi.** Aldatzen da 3. artikuluko 2. apartatuko a) letra. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:



“a) Zergapekoa edo, hala badagokio, “profesionala” Arabako Foru Aldundiarekin Interneten bidez konektatuko da [www.araba.eus](http://www.araba.eus) helbide elektronikoan, eta aitortutako ziurtagiri elektronikoa erabiltzearen bidez edo Arabako Foru Aldundiak baimendutako sarbide sistema alternatiboen bidez identifikatuko da Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan.

Foru dekretu honen ondorioetarako, “profesional” gisa ulertuko dira apirilaren 10eko 50/2001 Foru Dekretuaren 3. artikuluko aipatzen dituen pertsona naturalak edo juridikoak, baldin eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren menpe dagoen Baimen Erregistroan alta emanda badaude”.

**Hiru.** Aldatzen da 7. artikuluko 1. apartatua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“1. Bide telematikoz helarazi beharreko aitortenak taxutuko dira Arabako Foru Aldundiaren web orri ofizialetik ([www.araba.eus](http://www.araba.eus)) jaitsitako laguntza programak erabilia. Edonola ere, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak aitortenak beste programa batzuen bidez taxutzea baimendu ahalko du, baldin eta programa horien bidez lor badaiteke Arabako Foru Aldundiak berariaz ezarritako programarekin balidatutako fitxategi bat, egiaztatzeko Arabako Foru Aldundiaren web orri ofizialetik deskargatutakoaren formatu, ezaugarri eta zehaztapen berdinak dauzkala.”

**Lau.** Aldatzen da 8. artikuluko 2. apartatuko A) letrako 1. zenbakia. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“1. Bide telematikoz helarazi beharreko aitortenak taxutuko dira Arabako Foru Aldundiaren web orri ofizialetik ([www.araba.eus](http://www.araba.eus)) jaitsitako laguntza programak erabilia.

Edonola ere, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak aitortenak beste programa batzuen bidez taxutzea baimendu ahalko du, baldin eta programa horien bidez lor badaiteke Arabako Foru Aldundiak berariaz ezarritako programarekin balidatutako fitxategi bat, egiaztatzeko Arabako Foru Aldundiaren web orri ofizialetik deskargatutakoaren formatu, ezaugarri eta zehaztapen berdinak dauzkala.”

**Bost.** Aldatzen da 8. artikuluko 2. apartatuko B) letrako 1. zenbakia. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“1º. Zergapekoa Arabako Foru Aldundiarekin Interneten bidez konektatuko da [www.araba.eus](http://www.araba.eus) helbide elektronikoan, eta aitortutako ziurtagiri elektronikoa erabiltzearen bidez edo Arabako Foru Aldundiak baimendutako sarbide sistema alternatiboen bidez identifikatuko da Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan.

#### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA.**

Indargabeturik gelditu dira foru dekretu honetan ezarritakoaren kontra doazen maila bereko edo apalagoko xedapenak.

#### **AZKEN XEDAPENA.**

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.



Gasteiz.

**Ramiro González Vicente**

Diputatu nagusia  
Diputado General

**José Luis Cimiano Ruiz**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu  
Saileko foru diputatua  
Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y  
Presupuestos

**Teresa Viguri Martínez**

Ogasun zuzendaria  
Directora de Hacienda